



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN ETXEBIZITZEN ETA ZUZKIDURA BIZITOKIEN BIZIGARRITASUN BALDINTZAK ETA DISEINU ARAUAK ARAUTZEN DITUEN DEKRETU PROIEKTUA. AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOA.

Sarrera

Araudia egiterakoan herritarren parte hartzea arautzea da urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen, berritasun bat. Hartara, kontsulta publiko bat egin beharra dago lege- edo erregelamendu-proiektua edo -aurreproiektua egin baino lehen VI. Tituluak, Legegintza-ekimena eta erregelamenduak eta bestelako xedapenak emateko ahalari buruzkoak, bere 133. artikuluan (oinarrizko izaera duena) xedatutakoaren arabera.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak dekretu proiektu baten elaborazioa hasteko asmoa du Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren eta zuzkidura bizitokiaren bizigarritasun baldintzak eta diseinu arauak zehaztuko dituen. Dekretu proiektu horrek Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legea garatuko du. Lege hori 2015eko ekainaren 26an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Arau proiektua idazten hasi aurretik aurre kontsultarako epe bat irekitzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Web Atariaren bidez, bihar-etziko arauaren eragina gehien sumatuko duten norbanako eta antolakunde esanguratsuenen iritzia biltzeko, arestian aipatu den 133 artikuluko 1. Atalean jasotakoa betetzeko eta herritarren parte hartzea ahalbidetzeko.

Arauaren oinarrizko datuak:

Aurrekariak:

- 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna Sustatzekoa.
- 317/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketara babestuei buruzkoa (IV. Eranskina).
- 39/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzkoa (Hirugarren Xedapen Gehigarria).
- Agindua, 2009ko otsailaren 12koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzaren diseinurako ordenantzak onartzen dituena.
- Agindua, 2009ko martxoaren 11koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, babes ofizialeko etxebizitzaren diseinurako ordenantzak onartzen dituen 2009ko otsailaren 12ko Aginduko hutsak zuzentzeko dena.



- Eraikuntzaren kode teknikoa.
- Eraikuntza arautzen duten udal ordenantzak.
- Babes ofizialeko etxebizitzaren diseinurako udal ordenantzak

Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak:

- Euskal Autonomia Erkidegoan eta etxebizitzaren eta zuzkidura bizitokien gutxieneko bizigarritasun baldintzei buruzko irizpideak bateratzea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzaren eta zuzkidura bizitokien diseinuan kontuan hartzea hurrengo irizpideak: irizpide funtzional eta espazialak, jasangarritasuna, irisgarritasuna, generoa, ekipamendua eta osasungarritasuna.

Zein beharrezkoa eta egokia den araua onartzea:

Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legeak Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera orokorraren etxebizitza politiketako markoa sortzen du.

Ingurumeneko, Lurralde Plangintzako eta Etxebizitzako Sailaren ikuspegia Etxebizitzako 3/2015 Legearen garapena hiru urteko epean bideratua izatea da. Hortaz araudiaren beharrezko garapenen onespeneraren bitartez, kudeaketa-modelo eraginkorra eta beharrezko baliabide hartzea, epe luzeko etxebizitza iraunkorreko politikarako oinarriak ezartzen dituzte.

Aipatutako garapen beharra duen arlo bat gutxieneko bizigarritasun baldintzak ezartzeko da.

Araua helburuak:

- Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren eta zuzkidura bizitokien gutxieneko bizigarritasun baldintzei buruzko irizpideak ezartzea. Horretarako hurrengo irizpideak jasoko dira: osasungarritasuna, irisgarritasuna, generoa, jasangarritasuna eta ekipamendua. Kontuan hartuko dira ere berrikuntza, malgutasuna eta etxebizitza hurrengoetara egokitzeko beharra: bai etxebizitza mota berrietara, bai bizitzaren etapa desberdinetara.
- Etxebizitza eta zuzkidura bizitokien diseinu eta gutxieneko bizigarritasun baldintzak arau bakar batean bateratzea.
- Udalek eman behar duten etxebizitzaren bizigarritasunari buruzko egiaztatzea emateko edo infraetxeen bizigarritasunik ezaren deklarazioaren prozedura zehaztea.

Horrela, eragindako herritarrek, erakundeek, eta entitateek egoki jotako iradokizunak edo oharrak aurkeztu ahal izango dituzte, 2018ko azaroaren 7ik abenduaren 10ra, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web atariaren bitartez.

<http://www.irekia.euskadi.eus/es>.



Kontsulta hauek egiten dira proposatzen den araudi proiektua tramitatzerakoan derrigorrezkoa den edo ez hurrengo tramiteetan garatu beharreko parte hartzeko neurri gehigarrien kalterik gabe.

Eztabaida

Etxebizitza izateko eskubidea nahitaezkoa da gizakiarentzat, funtsezko beste eskubide batzuk baldintzatzen baititu; adibidez, enplegua izatekoa, botoa ematekoa, prestazio eta zerbitzu publikoak jasotzekoa, seme-alabak eskolaratzekoa, kulturaz eta ingurumen egokiaz gozatzekoa, bizipenak senideekin eta lagunekin partekatzekoa, eta beste hainbat ere, itzal handieneko doktrinak eta justizia-auzitegiek behin eta berriz nabarmendu dutenez. Etxebizitza izateko eskubideak eta eskubide hori benetan gauzatzeak bizitza duin bat eramatea errazten eta ahalbidetzen diote gizakiari.

Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen xedea da etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea arautzea Euskal Autonomia Erkidegoan.

Botere publikoek aipatutako eskubidea gauzatzeko egoki diren neurriak sustatuko dituzte, besteak beste, honako irizpide hauen arabera: Eraikinen antolamenduari buruzko legerian eta aplikatu beharreko araudi teknikoan aurreikusitako baldintza objektiboak betetzea, funtzionaltasunari, bizigarritasunari, segurtasunari eta osasungarritasunari dagokienez.

Arauren arabera infraetxetzat hartzen da etxebizitzatarako edozein eraikin edo eraikin-zati, ez baldin baditu gutxieneko bizigarritasun-baldintzak betetzen lege honek eta aplikatzekoa den araudi sektorialak edo lege hau garatzeko argitaratutako araudiak zehazten duten moduan. Hartara, baldintza horiek betetzen ez direnean udalak infraetxe horien bizigarritasunik ezaren deklarazioa egingo duela zehazten da.

Halaber, ekainaren 18ko 3/2015 Legearen arabera Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumena da gutxieneko bizigarritasun-baldintzak arautzea, eta administrazio publikoek onartzen dituzten plangintza-tresna guztietarako dira nahitaez bete beharrekoak baldintza horiek.

Ildo honetatik, Euskal Autonomi Erkidegoan ez dago autonomia eremuko arau bat zeinek modu eskusiboan gutxieneko bizigarritasun baldintzak arautzen dituen. Hala ere, bai onartu dira etxebizitzaren eta zuzkidura bizitokien gutxieneko baldintza batzuk jaso izan dituzten arauak, adibidez, 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna Sustatzekoa; 317/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzkoa; eta 39/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzkoa.

Estatu mailari dagokionez, bizigarritasun baldintzak zehazteko Eraikuntzaren kode teknikora jo behar da.



Azkenik, udalen arloan, udal bakoitzak onartu izan ditu Eraikuntzari buruzko Udal Ordenantzak eta Babes ofizialeko etxebizitzaren diseinuari buruzko Udal Ordenantzak eta beraietan bizigarritasun gutxienezko baldintzak jaso izan dira.

Eusko Jaurlaritzak uste du beharrezkoa dela Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan etxebizitza eta zuzkidura bizitokien gutxieneko bizigarritasun baldintzak bateratzea, bai obra berriei dagokienez bai existitzen diren etxebizitzari dagokienez. Era berean, beharrezkotzat jotzen du etxebizitzaren eta zuzkidura bizitokiei dagokienez hurrengo irizpideak jasotzea: osasungarritasuna, irisgarritasuna, generoa, jasangarritasuna eta ekipamendua. Kontuan hartuko dira ere berrikuntza, malgutasuna eta etxebizitza hurrengoetara egokitzeko beharra: bai etxebizitza mota berrietara, bai bizitzaren etapa desberdinetara.

Arau honek etxebizitzaren kokalekuari buruzko baldintzak ere jasoko ditu, etxebizitza duina izan dadin eta ingurumenarekin bat etorri dadin, bere erabilera, mantentzea eta gozatzea baldintza ekonomiko proportzionalen arabera egin ahal izateko.

Galdera Orokorrak

- Ados al zaude Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren eta zuzkidura bizitokien bizigarritasun baldintzak eta diseinu arauak arautzen dituen Dekretu Proiektua deritzonaren helburu nagusiarekin?
- Ikuspegiren bat falta dela antzematen duzu? Jorratu beharreko beste gairik?
- Zer izango zen zure etxebizitzan aldatuko zenukeen lehendabiziko gauza? Zer gehituko zenukeen?
- Uste duzu etxebizitzaren ezaugarriak aldatu egin behar direla bere biztanleen ezaugarriak aldatzen diren neurrian edo herritarrek etxebizitzaz aldatu beharko lukete?
- Zure ustetan, gaur egungo etxebizitzak erraz eta merke mantentzen dira bere izaera, diseinu eta gaien arabera?
- Zein izango zen zure ustetan etxebizitza baten bizi behar diren pertsonen gehiengoa etxebizitzaren azalera kontuan hartuta?
- Beharrezkotzat jotzen duzu bizigarritasun egiaztatzea ezartzea?
- Uste duzu Administrazio Publikoak nahiko kontrola burutzen duela etxebizitzaren bizigarritasun eta kalitateari dagokionez?

Diseinu, kokaleku, banaketa eta ekipamenduari buruzko galderak

- Uste duzu etxebizitzek gutxieneko eguzkialdi bat izan behar dutela? Garrantzitsua da etxebizitzak bi aldeetara ematea? Zer uste izango zenuke etxebizitzak soilik iparraldera emango balu?
- Uste duzu etxebizitza eraikinetan komuneko eremuak (arropak garbitzeko edo esekitzeko eremuak adibidez) sustatu beharko liratekeela?



- Uste duzu etxebizitzak eskaintzerakoan herritar bakoitzari utzi behar zaiola barne banaketari buruzko erabakia? Kasu hauetan zerbitzu guneak eta fatxada besterik ez luke izango eraikinak.
- Ze uste duzu gaur egun etxebizitzetan egiten den banaketari buruz (logela, bainugela, egongela-jangela eta sukaldea)? Ze bestelako banaketa egingo zenuke? Ze ekipamendu jarriko zenuke? Uste duzu sukaldeak jateko leku nahiko izan behar duela edo nahiago duzu leku hori egongelan egotea?
- Uste duzu beharrezkoa dela etxebizitza batek garajea eta trasteleku bat izatea?
- Uste duzu arropa esekitzeko tokia lehorgailu batek ordezkatu dezakeela?